



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

ORDENANTZA FISKALA, HIRILURREN BALIO IGOERAREN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. tituluko V. kapituluaren 172tik 178ra bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean ezarri da ordainarazpen hau.

Zergagaia

2. art. 1. Zerga honen zergagaia hirilurren balio igoeratik sortzen da, hain zuzen ere, aipatu lurren jabaria mugatzen duten gozameduko eskubide errealen eraketaren edo transmititzearen ondorioz, edota haien jabetza aldaketaren ondorioz, titulua edozein izanik.

2. Ondorio horietarako, hirilurrak izanen dira ondoko hauexek:

- a) Hirilurzorua eta lurzoru urbanizagarri programatua.
- b) Lurzoru urbanizagarri ez programatua, Hirigintzako Jarduketa Programa onesten den unean.
- c) Honakoak dituztenak: ibilgailuendako sarbidea, ur hornidura, uren hustuketa eta argindarra; edo gune sendotuetan daudenak, gutxienez haien azaleraren erdia eraikia dutelako.
- d) Lur zatikatuak, nekazaritzako legeriaren aurka eginak badira.

3. Lurraldearen gaineko Kontribuzioari dagokionez landalurtzat jotzen diren lurren balio igoera ez da zerga honi lotuko.

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA

Fundamento

Artículo 1.º La presente exacción se establece al amparo de lo dispuesto en el Capítulo VI del Título II, artículo 172 a 178, ambos inclusive, de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de las Haciendas Locales de Navarra.

Hecho imponible

Art. 2.º 1. Constituye el hecho imponible de este impuesto el incremento de valor que experimentan los terrenos de naturaleza urbana y que se ponga de manifiesto a consecuencia de la transmisión de la propiedad de los mismos por cualquier título o de la constitución o transmisión de cualquier derecho real de goce, limitativo del dominio, sobre los referidos terrenos.

2. A estos efectos, tendrán la consideración de terrenos de naturaleza urbana:

- a) El suelo urbano y urbanizable programado.
- b) El suelo urbanizable no programado, desde el momento en que se apruebe un Programa de Actuación Urbanística.
- c) Los que cuenten con acceso rodado, abastecimiento de agua, evacuación de aguas y suministro de energía eléctrica; o estén comprendidos en áreas consolidadas por la edificación al menos en la mitad de su superficie.
- d) Los terrenos fraccionados en contra de la legislación agraria.

3. No está sujeto a este impuesto el incremento de valor que experimenten los terrenos que tengan la consideración de rústicos a efectos de la Contribución Territorial.



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

Salbuespenak

3. art. Honako egintzengatik agertzen diren balio igoerak zerga honetatik salbuetsirik egonen dira:

a) Ezkontideek ezkontza unitatera ekartzen dituzten ondasun eta eskubideak, haien alde eta haiek ordaintzeko egiten diren esleipenak eta bion ondasunengatik ezkontideei egiten zaizkien eskualdatzeak.

b) Herentziaz, legatuz, ezkonsariz, emaitzaz edo, dohainik dela, bertze nolanihi egiten diren edozein ondasunen eskualdatzeak, aurrekoen, ondorengoen eta ezkontideen artean egiten badira.

Hala ere, erran diren negozio juridiko horiek egiten direnean, ez dute etenen Ordenantza honen seigarren artikuluan xedatzen den hogeituroko epea.

c) Ezkontideen arteko edo haiengandik seme-alabenganako ondasun eskualdatzeak, baldin ezkontza baliogabetez, banantze edo dibortzio kasuetako epaia betetzeagatik bada.

d) Zortasun eskubide edozertarikoak eratu eta transmititzea.

4. art. Halaber zerga honetatik salbuetsirik daude balio igoerak, zerga hori ordaintzeko betebeharrak pertsona edo entitate hauei tokatzen zaienean:

a) Nafarroako Foru Komunitateari, Estatuari, erkidego autonomoei, baita haien guztien erakunde autonomo izaera administratibokoei ere.

b) Irurtzungo Udala eta haren erakunde autonomo izaera administratibokoei.

Exenciones

Art. 3.º Están exentos de este impuesto los incrementos de valor que se manifiesten a consecuencia de los actos siguientes:

a) Las aportaciones de bienes y derechos realizados por los cónyuges a la sociedad conyugal, las adjudicaciones que a su favor y en pago de ellas se verifiquen, y las transmisiones que se hagan a los cónyuges en pago de sus haberes comunes.

b) La transmisión de toda clase de bienes por herencia, legado, dote, donación o cualquier otro título gratuito que tenga lugar entre ascendientes, descendientes y cónyuges.

No obstante, cuando se produjeran los negocios jurídicos citados, éstos no interrumpirán el plazo de veinte años previsto en el artículo seis de esta Ordenanza.

c) Las transmisiones de bienes entre cónyuges o a favor de los hijos, como consecuencia del cumplimiento de sentencias en los casos de nulidad, separación o divorcio.

d) La constitución y transmisión de cualesquiera derechos de servidumbre.

Art. 4.º Asimismo, están exentos de este impuesto los incrementos de valor correspondientes cuando la obligación de satisfacer dicho impuesto recaiga sobre las siguientes personas o entidades:

a) La Comunidad Foral de Navarra, el Estado, las Comunidades Autónomas, así como sus respectivos organismos autónomos de carácter administrativo.

b) El municipio de Irurtzun y sus organismos autónomos de carácter administrativo.



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

- c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako kalifikazioa duten erakundeei.
- d) Indarrean dagoen legeriak agindu bezala eraturako entitate Gizarte Segurantzaren eta mutualitate nahiz bahituretxeen kudeatzaileei.
- e) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan salbuespena aitortu zaien pertsona edo entitateei.
- f) Haiei atxikitako lurren alderako itzulkizun diren kontzesio administratiboen titularrak.
- g) Espainiako Gurutze Gorria.

Subjektu pasiboak

5. art. Honakoak dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun diren aldetik:

- a) Lurren eskualdatzeetan edo irabazi asmoz jabaria mugatzen duten gozatze eskubide errealak eratu edo eskualdatzean, lurraren erostuna, edo kasuan kasuko eskubide errealak eratu edo eskualdatu egiten zaion pertsona.
- b) Lurren eskualdatzeetan edo ordaindu beharrez jabaria mugatzen duten gozatze eskubide errealak eratu edo eskualdatzean, lurren eskualdatzaileak edo kasuan kasuko eskubide errealak eratu edo eskualdatu egiten duen pertsona. Hala ere, erostunak zergadunaren ordezkioak egiten ditu, non eta erostun hori ez den subjektu salbuespena duten pertsona edo erakundeetakoa.

Erostunak zergadunaren ordezkioak egiten baditu, aurreko leerroaldean xedatu bezala, zilegi izanen du beti ere kargaren zenbatekoa eskualdatzaileari erreperkutitzea

- c) Las instituciones que tengan la calificación de benéficas o benéfico- docentes.
- d) Las entidades gestoras de la Seguridad Social, de Montepíos, y de Mutualidades constituidas conforme a lo previsto en la legislación vigente.
- e) Las personas o entidades a cuyo favor se haya reconocido la exención en Tratados o Convenios Internacionales.
- f) Los titulares de concesiones administrativas revertibles, respecto de los terrenos afectos a las mismas.
- g) La Cruz Roja Española.

Sujetos pasivos

Art. 5.º Es sujeto pasivo del impuesto, en concepto de contribuyente:a) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título lucrativo, el adquirente del terreno o la persona a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate.

b) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título oneroso, el transmitente del terreno o la persona que constituya o transmita el derecho real de que se trate. No obstante, el adquirente tendrá la condición de sustituto del contribuyente, salvo en aquellos casos en que el adquirente sea una de las personas o entidades que gozan de exención subjetiva.

Cuando el adquirente tenga la condición de sustituto del contribuyente con arreglo a lo dispuesto en el párrafo anterior, podrá repercutir, en todo caso, al transmitente el importe del gravamen.



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

Zerga oinarria

6. art. Zerga honen oinarria hirilurren balio igoera erreala da, sortzapenaren unean agertzer a emana eta gehienez hogei urteko epean izandakoa.

7. art. Lur eskualdaketetan, lurrek sortzapenaren unean izaten duten balioa, une horretan Hirilurren gaineko Kontribuzioaren ondorioetarako finkaturik dutena izanen da.

Hirilurren balioaren igoera erreala zenbatekoa den zehazteko, ondoko adierazpen matematikoa aplikatuko da:

$ZO = Bc \cdot U \cdot \% P$, honela adierazia:

ZO = Zerga oinarria edota lurren balioaren igoera erreala.

Bc = Lurraren balioa, katastroan.

U = Urte kopurua, balioaren igoera zenbat urtetan zehar gertatu den.

% P = Portzentajea, lurren balioaren igoera zenbat denboran sortu den haren arabera finkatutakoa, beti ere koadro honen arabera:

BALIO IGOERA SORTZEN DENEKO ALDIA

1 ETIK 5 URTE BIT. 10 URTE BITARTE 15 URTE
BITARTE 20 URTE BITARTE

% 2,2 % 2,1 % 2 % 2

8. art. Jabaria mugatzen duten gozamenduko eskubide errealean eraketan eta eskualdaketan, balioaren igoera zein epetan gertatu den, Udalak haren arabera kalkulatzeko duen portzentaje finkoa, balio-zatiaren gainean aplikatuko da eta, horri dagokionean, balio hori Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko

Base imponible

Art. 6.º La base imponible de este impuesto está constituida por el incremento real del valor de los terrenos de naturaleza urbana puesto de manifiesto en el momento del devengo y experimentado a lo largo de un periodo máximo de veinte años.

Art. 7.º En las transmisiones de terrenos, el valor de los mismos en el momento del devengo será el que tenga fijado en dicho momento a efectos de la Contribución Territorial Urbana.

Para determinar el importe del incremento real del valor de los terrenos de naturaleza urbana, se aplicará la siguiente expresión matemática:

$BI = Vc \cdot N \cdot X\%$, donde:

BI = Base imponible o incremento real del valor de los terrenos.

Vc = Valor catastral del terreno.

N = Número de años completos del período de generación del incremento de valor.

X% = Porcentaje fijado en atención al período de generación del incremento de valor del terreno, que resulte del siguiente cuadro:

PERIODO DE GENERACION DEL INCREMENTO DE VALOR

DE 1 A 5 AÑOS HASTA 10 AÑOS HASTA 15 AÑOS
HASTA 20 AÑOS

2,2% 2,1% 2% 2%

Art. 8.º En la constitución y transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio, el porcentaje fijado por el Ayuntamiento en atención al periodo de generación del incremento del valor se aplicará sobre la parte del valor del terreno que represente, respecto del



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatu diren arauak aplikatuz kalkulatzen den eskubide horien balioa izanen da.

9. art. Eraikin edo lur baten gainean solairu bat edo gehiago goratzeko eskubidearen edo azalerako eskubide erreala izan gabe lurpean eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketan, balioaren igoera zein epetan gertatu den Udalak haren arabera finkatzen duen portzentajea, balioaren zatiaren gainean aplikatuko da eta, horri dagokionean, balio hori aterako da eskualdaketa eskrituran finkatzen den proportzotasun-modulutik edo, hori ez badago, azalera edo bolumenaren, arteko proportziora ezarri ondoren aterako denetik.

10. art. Nahitaezko desjabetzapenak daudenean, balioaren igoera zein epetan gertatu den Udalak haren arabera finkatzen duen portzentajea lurraren balioari dagokion salneurri-justuaren zatiaren gainean aplikatuko da.

Kuota

11. art. Zerga honen kuota zerga-oinarriari % 8ko karga-tasa aplikatu ondokoa izanen da.

Sortzapena

12. art. Zerga sortzen da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostubidez edo doan, bizien artean edo heriotzagatik, eskualdatzen den egunean berean.

b) Jabaria mugatzen duen gozamenduko eskubide errealen bat eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa ematen den egun berean.

mismo, el valor de los referidos derechos calculado mediante la aplicación de las normas fijadas a efectos del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Art. 9.º En la constitución o transmisión del derecho a elevar una o más plantas sobre un edificio o terreno, o del derecho de realizar la construcción bajo suelo sin implicar la existencia de un derecho real de superficie, el porcentaje fijado por el Ayuntamiento en atención al periodo de generación del incremento del valor se aplicará sobre la parte del valor del terreno que represente, respecto del mismo, el módulo de proporcionalidad fijado en la escritura de transmisión o, en su defecto, el que resulte de establecer la proporción entre la superficie o volumen.

Art. 10. En los supuestos de expropiación forzosa, el porcentaje fijado por el Ayuntamiento en atención al periodo de generación del incremento del valor se aplicará sobre la parte del justiprecio que corresponda al valor del terreno.

Cuota

Art. 11. La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen del 8%.

Devengo

Art. 12. El impuesto se devenga:

a) Cuando se transmita la propiedad del terreno, ya sea a título oneroso o gratuito, entre vivos o por muerte, en la fecha de la transmisión.

b) Cuando se constituya o transmita cualquier derecho real de goce limitativo del dominio, en la fecha en que tenga lugar la constitución o transmisión.



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

Epaitegiek edo administrazioak emandako ebazpen irmoaren bidez deklaratu edo onartzen denean lurraren eskualdaketa edo horren gaineko gozamenduaren eskubide errealearen eskualdaketa zehazten duen egintza edo kontratua deuseztatu, eten edo ebatzi dela, subjektu pasiboak eskubidea izanen du ordaindutako zerga itzul diezaioten, beti ere egintza edo kontratu horrek irabazirik sortu ez badio eta itzulketa, ebazpena irmo bihurtu eta bortz urteko epean, itzul diezaiotela eskatzen badu; irabazi-ondorioak izan direla usteko da, interesatuek elkarri itzulketak egin behar dizkiotela egiaztatzen ez denean. Itzulketa horiek Nafarroako Foru Berriko 506. Legeak eta horiekin bat datozenek eta Kode Zibileko 1295. artikulua aipatzen dituzte. Egintzak edo kontratuak irabazirik sortu ez badute ere, etetea edo ebazpena deklaratzeko bada subjektu pasiboak zergarekiko dituen betebeharrak bete ez dituelako, ez da ezer itzuliko.

Kontratua indarrrik gabe gelditzen bada kontratu-emaile biek adostasun osoz hala erabaki dutelako, ordaindutako zergarik ez da itzuliko eta zergaren menpeko egintza berriz hartuko da. Elkarren arteko erabakitzat hartuko da adostasuneko adiskidetze egintza eta eskaria bera onartzea.

Baldintzaren bat tartean daukaten egintza edo kontratuetan, horren kalifikazioa Nafarroako Foru Berriko aginduek emanen dute. Baldintza hori esekitzekoa bada, baldintza hori bete arte zenbatekoa ez da likidatuko. Baldintza hori iraungitzailea bada, zerga eskatuko da, baldintza hori betetzen denean, behar den itzulketa egin behar bada ere, aurreko leerroaldeko erregelari jarraikiz.

Cuando se declare o reconozca judicial o administrativamente por resolución firme haber tenido lugar la nulidad, rescisión o resolución del acto o contrato determinante de la transmisión del terreno o de la constitución o transmisión del derecho real de goce sobre el mismo, el sujeto pasivo tendrá derecho a la devolución del impuesto satisfecho, siempre que dicho acto o contrato no le hubiese producido efectos lucrativos y que reclame la devolución en el plazo de cinco años desde que la resolución quedó firme, entendiéndose que existe efecto lucrativo cuando no se justifique que los interesados deban efectuar as recíprocas devoluciones a que se refieren la Ley 506 y concordantes del Fuero Nuevo de Navarra y el artículo 1.295 del Código Civil. Aunque el acto o contrato no haya producido efectos lucrativos, si la rescisión o resolución se declarase por incumplimiento de las obligaciones del sujeto pasivo del impuesto, no habrá lugar a devolución alguna.

Si el contrato queda sin efecto por mutuo acuerdo de las partes contratantes, no procederá la devolución del impuesto satisfecho y se considerará como un acto nuevo sujeto a tributación. Como tal mutuo acuerdo se estimará la avenencia en acto de conciliación y el simple allanamiento a la demanda.

En los actos o contratos que medie alguna condición, su calificación se hará con arreglo a las prescripciones contenidas en el Fuero Nuevo de Navarra. Si fuese suspensiva no se liquidará el importe hasta que ésta se cumpla. Si la condición fuese resolutoria, se exigirá el impuesto desde luego, a reserva, cuando la condición se cumpla, de hacer la oportuna devolución según la regla del párrafo anterior.



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

Zergaren kudeaketa

13. art. Zergadunak edo, hala balitz, haien ordezkioak edo legezko ordezkariak, beharturik daude aitorpena Udalaren kudeaketa bulegoan aurkeztera eta hartan ematen duten ereduak betetz; aitorpen horretan, bidezko likidazioa egiteko tributu-harremanerako elementu nahitaezkoak agertuko dira.

Aitorpen hori aurkeztuko da, zerga sortzen denetik hasita ondoko epe hauetan:

a) Bizien arteko egintzak direnean, epea bi hilabetekoa izanen da.

b) Heriotzaren ondoriozko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izanen da, eta urtebetekoa, subjektu pasiboak hala eskatzen badu.

Aitorpenari agiri bat erantsiko zaio, non ezarraldia sortzen duten egintza edo kontratuak agertuko diren. Halaber, erantsiko zaizkio zernahi frogagiri, subjektu pasiboak onuradun gisa erreklamaturako salbuespenei dagozkiena, halakorik balitz.

14. art. Udal administrazioak eskatzen ahal dizkie interesatuei behar diren datu, argibide, aurrerakin eta frogagiriak, zerga likidatzeko.

15. art. 13. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, halaber beharturik dago subjektu pasiboek dituzten epe eta era berberetan Udalari aditzera ematera zergagaiaren gauzatzea zein izan den, lurren eskualdatzaileek edo jabaria mugatzen duten gozamenduko eskubide errealean eratzailerik edo eskualdatzaileek, beti ere irabazi asmoz eta bizien arteko negozio juridikoaren ondorioz eman badira.

16. art. Halaber, notarioak beharturik egonen dira Irurtzuno Udalari igortzera, hiruhileko bakoitzaren lehen hamabortzaldian, aurreko hiruhilekoan baimendu

Gestión del impuesto

Art. 13. Los contribuyentes, o en su caso los sustitutos o representantes legales de ellos, vendrán obligados a presentar ante la oficina gestora del Ayuntamiento, y en el modelo que dicha oficina facilite, una declaración que contenga los elementos de la relación tributaria imprescindibles para practicar la liquidación procedente.

Dicha declaración deberá ser presentada en los siguientes plazos a contar desde la fecha en que se produzca el devengo del impuesto:

a) Cuando se trate de actos entre vivos, el plazo será de dos meses.

b) cuando se trate de actos por causa de muerte, el plazo será de seis meses prorrogables hasta un año a solicitud del sujeto pasivo.

A la declaración se acompañará el documento en el que consten los actos o contratos que originan la imposición, y cualesquiera otros justificativos, en su caso, de exenciones o excepciones que el sujeto pasivo reclame como beneficiario.

Art. 14. La Administración Municipal podrá requerir en todo caso a los interesados para que proporcionen los datos, informes, antecedentes y justificantes necesarios para la liquidación del impuesto.

Art. 15. Con independencia de lo dispuesto en el artículo 13, están igualmente obligados a comunicar al Ayuntamiento la realización del hecho imponible, en los mismos plazos y modo que los sujetos pasivos, los transmitentes de terrenos o constituyentes o transmitentes de derechos reales de goce limitativos de dominio, siempre que se hayan producido a título lucrativo y por negocio jurídico entre vivos.

Art. 16. Los Notarios estarán obligados a remitir al Ayuntamiento de Irurtzun, dentro de la primera quincena de cada trimestre, relación o índice comprensivo de



IRURTZUNGO
UDALA
(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO
DE IRURTZUN
(NAVARRA)

dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea, zerga honen zergagaia gauzatu dela agerian uzten duten gertakari, egintza edo negozio juridikoei buruzkoak, azken borondatezko egintzak izan ezik.

Halaber, beharturik egonen dira, epe berean, sinadura ezagutu edo legitimatzeko aurkeztu zaizkien agiri pribatuen zerrenda, gertakari, egintza edo negozio juridiko berberak osatutakoa, igortzera.

Artikulu honetan aurreikusitakoak ez du galarazten lege orokor eta zergazkoetan ezarritako betebeharrak orokorra.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza fiskal honek, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan ezarritakoari jarraikiz behin betikoz onetsitakoan, indarra hartu eta erabateko eragin juridikoa sortuko du bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean.

Bigarrena.-Ordenantza hau aldatzeko, onesteko bete ziren izapide berdinak bete beharko dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko lehen kapituluko hirugarren atalean xedatutakoari jarraikiz.

Hirugarrena.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, aplikagarri izanen dira Ordenantza Fiskal Orokorra, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta udal erabakiak baino goragoko xedapen guztiak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

Irurtzunen, bi milako maiatzaren hogeita hiruan.

Alkatea, Eduardo Murugarren Francés.

todos los documentos por ellos autorizados en el trimestre anterior, en los que se contengan hechos, actos o negocios jurídicos que pongan de manifiesto la realización del hecho imponible de este impuesto, con excepción de los actos de última voluntad.

También estarán obligados a remitir, dentro del mismo plazo, relación de los documentos privados, comprensivos de los mismos hechos, actos o negocios jurídicos, que les hayan sido presentados para conocimiento o legitimación de firmas.

Lo previsto en este artículo se entiende sin perjuicio del deber general de colaboración establecido en las leyes generales y tributarias.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.-La presente Ordenanza Fiscal, una vez aprobada definitivamente conforme al procedimiento establecido en el artículo 324 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, entrará en vigor, produciendo plenos efectos jurídicos, una vez publicado íntegramente el texto en el BOLETIN OFICIAL de Navarra.

Segunda.-Para la modificación de esta Ordenanza Fiscal se observarán los mismos trámites que para su aprobación, conforme a lo dispuesto en la Sección Tercera, Capítulo Primero, del Título IX de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra.

Tercera.-En todo lo no previsto en la presente Ordenanza será de aplicación lo dispuesto en, la Ordenanza Fiscal General, la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de las Haciendas Locales de Navarra, y cuantas disposiciones de rango superior a los acuerdos de carácter municipal sean aplicables a las materias reguladas.

Irurtzun, veintitrés de mayo de dos mil.

El Alcalde, Eduardo Murugarren Francés.